

266

2022

OTSAILA  
FEBRERO

**berritu**

Urnietako Udalaren aldizkaria



# Herritarrek behin betiko proiektua aukeratu dute

La ciudadanía ha elegido el proyecto definitivo



## Mugara arkitektura estudioak aurkezturiko proiektua gailendu da bozketan

Urnietarrek Mugara Arquitectura S.L-k aurkezturiko proiektua hautatu dute Plazido Muxika plaza nola estali erabakitzeko gauzatu den bozketan. Beraz, zur laminatuzko egitura eta sandwich panelaz eta zelula polikarbonatoaz osatuta egongo den estaldura izango du plazak.

Urnietan erroldaturiko 16 urtetik gorako pertsonak aukera izan zuten ideien lehiaketan hautatu ziren 3 proiektuen artean bozkatzeko abenduaren 17tik urtarriaren 20ra bitarte. Bada, epe horretan 270 galdetegi jaso ziren. 124 webgunean, 74 APPan eta gainerako 72ak berriz, herriko puntu desberdinetan ipinitako buzoi eta kutxetan.

Horietatik 217 eman ziren ontzat. Gainerakoak, parte hartzaileak urnietan erroldatuta ez zeudelako, behin baino gehiagotan parte hartu zutelako edo galdetegi behar bezala beteta ez zegoelako baztertu ziren. Baleko galdetegien artean gehingoak Mugararen proiektuaren aldeko hautua egin zuen diferentzia handiarekin:

- 1.proiektua: 152
- 2.proiektua: 41
- 3. proiektua: 23

Parte hartzaile batek zurian bozkatu zuen.



### Proiektua idaztea eta obra esleitzea hurrengo pausoak

Horrenbestez, herriko zein plaza edo parke estaltzeko abian jarritako parte hartze prozesuari amaiera eman zaio. Lehenik, herritarrek estali nahi zuten eremua hautatu zuten, Plazido Muxika plaza, hain zuzen. Ondoren, plaza nola estali erabakitzeko ideien lehiaketa bat egin zen. 5 proposamen jaso ziren ahalbideturiko epean eta horietatik 3

hautatu zituzten Udaleko teknikariek. Eta azkenik, herritarrek izan dira 3 aukera horien artean bozkatu dutenak.

Orain, Mugara arkitektura estudioak proiektua idatzi beharko du, eta, gero, obra gauzatzeko lehiaketa egin beharko da. Behin obra esleitura plaza estaltzeko lanak aurrera eramango dira herritarrek eurek aukeraturiko estalkia ahalik eta azkarren erabilgarri izan dezaten.

## El proyecto presentado por el estudio de arquitectura Mugara se impone en la votación

La ciudadanía urnietarra ha elegido el proyecto presentado por Mugara Arquitectura S.L. en la votación que se ha llevado a cabo para decidir cómo cubrir la plaza Plazido Muxika. Por lo tanto, la plaza contará con una estructura de madera laminada y una cubierta formada por paneles sándwich y polycarbonato celular.

Las personas mayores de 16 años empadronadas en Urnieta tuvieron la oportunidad de votar desde el 17 de diciembre hasta el 20 de enero entre los 3 proyectos seleccionados en el concurso de ideas previamente realizado. En ese periodo se recibieron 270 cuestionarios. 124 en la web, 74 en la APP y las 72 restantes en los buzones y en las urnas habilitadas en diferentes puntos de la localidad.

De todos ellos se dieron por válidos 217. El resto fueron rechazados porque las personas participantes no estaban empadronadas en Urnieta, por haber participado en más de una ocasión o porque el cuestionario no estaba correctamente cumplimentado. Entre los cuestionarios válidos la mayoría optó por el proyecto de Mugara con gran diferencia:

- Proyecto 1: 152
- Proyecto 2: 41
- Proyecto 3: 23

Una de las personas participantes votó en blanco.

### Redacción del proyecto y adjudicación de la obra

De esta manera, se pone fin al proceso par-

ticipativo desarrollado para decidir que parque o plaza de la localidad cubrir. Primero los y las urnietarras seleccionaron el espacio a cubrir, la plaza Plazido Muxika. Después, se realizó un concurso de ideas para decidir cómo cubrir la plaza. Se recibieron 5 propuestas en el plazo habilitado, de las cuales 3 fueron seleccionadas por el personal técnico municipal. Y por último, ha sido la ciudadanía urnietarra quien ha votado entre esas 3 opciones.

Ahora, el estudio de arquitectura Mugara tendrá que redactar el proyecto, y, luego, se realizará el concurso para adjudicar la obra. Una vez adjudicada la obra se llevarán a cabo los trabajos de cubrición de la plaza con el fin de que la cubierta elegida este a disposición de los y las urnietarras lo antes posible.

# Urnietako Udalak Gobernantzaren Europako Bikaintasun Zigilua lortu du

Urnietako Udalak Euskadiko Udalen Elkar-teak (Eudel) eta Europako Kontseiluak ematen duten 2021eko Gobernantzako Bikaintasunaren Europako Zigilua lortu zuen urtarrilaren 19an. Zigilu horrek tokiko gobernuen kalifikazio gorena egiaztatzen du, gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren 12 printzipioen arabera.

ELOGE (European Label for Governance Excellence) Europa mailako saririk handiena da gobernu demokratikoaren hamabi printzipioko zerrendan bikaintasunaren kalifikazioa egiaztatzen duten tokiko gobernuentzat. Europako Kontseiluaren autoevaluazio-sistema zorrotz batean oinarritutako aintzatespena da, eta udal-kudeaketa eraginkorra eta jasagarritasun-ikuspegia duena bideratzea du helburu.

Urnietako Udalak dituen probak aztertu ditu 97 adierazleri erantzuteko. Adierazle horiek bere jardueraren alderdi guztiak hartzen dituzte, bai antolaketaren barruan, bai zerbitzuari dagokionez eta gizartearekin harreman estua izateari dagokionez. Bes-

teak beste, honako atal hauek aztertu dira: administrazio-izapideak, kontratazio-prozedurak, finantza- eta aurrekontu-kudeaketa, hautetsien jokabide etikoa, herritarrek parte hartzeko kanal edo organoak, gardentasun eta berrikuntza publikorako tresnak, eta giza eskubideen sustapena, berdintasuna, aniztasuna, inklusioa eta gizarte-kohesioa ardatz gisa hartuta.

Agurtzane Mercader zinegotziak jaso zuen saria Urnietako Udalaren ordezkari gisa eta bere hitzaldian nabarmendu zuenez, "sari honek erakusten du Udalak eguneroko egiten duen lan guztia erakunde hurbila, arina, eraginkorra, gardena, parte-hartzailea eta etorkizunera begira dagoena izaten saiatzeko, aurkezten diren erronkei modurik egokienean aurre egiteko". Mercaderrek gaineratu zuen oinarri horiekin "helburu nagusia herritarren beharrei eta itzaropenei erantzutea eta Urnieta guztion artean eraikitzen jarraitzea dela". Era berean, nabarmendu zuen "ez dugula erlaxatu behar bereizgarri hori lortzearekin, izan ere, garrantzitsuena da modu berean



lan egiten jarraitzea, gure gobernagarritasun-maila onari eusteko". Bestalde, esker oneko hitzak izan zituen Udaleko langileentzat, egiten duten lan bikaina gorai-patuz eta sari hau horren isla dela adieraziz.

## Urnietak zigilua eskuratu duen bigarren aldia

ELOGEren balioa da ez dela betiko, izan ere, lortu ondoren bi edo hiru urtean behin berri behar baita. Hain zuzen ere, horixe izan da Urnietako Udalaren kasua, 2018an ere zigilua lortu baitzuen, eta, orain, berriz lortu du, eta horrek balioa ematen dio urte hauetan guztietan egindako lanari.

## El Ayuntamiento de Urnieta logra el Sello de Excelencia en Gobernanza

El Ayuntamiento de Urnieta obtuvo el 19 de enero el Sello Europeo de Excelencia en Gobernanza 2021 que concede la Asociación de Municipios Vascos-Eudel y el Consejo de Europa, que acredita la máxima calificación de los gobiernos locales conforme a 12 principios de buen gobierno, calidad e innovación democrática.

ELOGE (European Label for Governance Excellence) es la más alta distinción a nivel europeo para los gobiernos locales que acreditan la calificación de excelencia en una lista de doce principios de buen gobierno, calidad e innovación democrática. Es un reconocimiento basado en un riguroso sistema de autoevaluación del Consejo de Europa, cuyo objetivo es orientar una gestión municipal eficaz y eficiente, y con enfoque de sostenibilidad.

El Ayuntamiento de Urnieta ha examinado las pruebas de las que dispone para responder a un total de 97 indicadores que abarcan todos los aspectos de su actuación, tanto a nivel interno de organización,

como en su labor de servicio y de estrecha relación con la sociedad. Como apartados analizados figuran, entre otros, los trámites administrativos, los procedimientos de contratación, la gestión financiera y presupuestaria, la conducta ética de cargos electos, los canales u órganos de participación ciudadana, las herramientas de transparencia e innovación pública, así como la promoción de los Derechos Humanos con la igualdad, la diversidad, la inclusión y la cohesión social como ejes transversales.

La concejala Agurtzane Mercader recogió el premio en representación del Ayuntamiento de Urnieta y en su intervención destacó que esta distinción "refleja todo el trabajo que realiza el Ayuntamiento cada día para tratar de ser una institución cercana, ágil, eficiente, transparente, participativa y con visión de futuro para hacer frente a los retos que se vayan presentando". Mercader añadió que con esas bases "el objetivo principal es dar respuesta a las necesidades y a las expectativas de la

ciudadanía y seguir construyendo Urnieta entre todos y todas". Asimismo, remarcó que "no debemos de relajarnos con la obtención de este distintivo, lo importante es continuar trabajando de la misma manera para mantener nuestro buen nivel de gobernabilidad". Por otro lado, también tuvo palabras de agradecimiento para los y las trabajadoras del consistorio alabando el magnífico trabajo que desarrollan y declarando que este premio es reflejo de ello.

## Segunda vez que Urnieta obtiene el Sello

El valor del ELOGE reside en que no es para siempre, ya que una vez obtenido debe renovarse cada dos o tres años. Precisamente, ese ha sido el caso del Ayuntamiento de Urnieta, ya que también obtuvo el Sello en el año 2018, y, ahora, lo ha conseguido nuevamente, lo que pone en valor el trabajo desarrollado durante todos estos años.



## Txoritagaingo parke eraberritua erabilgarri

Txoritagaingo parkea eraberritzeko lanak amaitu ostean eremua herritarrei irekita dago. Oraindik horma txikia pintatzeke dago, baina dagoeneko umeez espazio berri, moderno eta atseginean jolasteko aukera dute.

Zurezko jolas berri eta moderno batzuk instalatu dira parkean, haurrak sozializatu eta haien trebetasunak indartzeko egokiak direnak, eta halaber, itxitura hesia kendu da auzoaren bat egiten duen espazio irekia sortuz.

Herritarrek aurreko urteetako parte hartze prozesuetan proposaturiko hobekuntzetako bat da.

## Abierto el renovado parque de Txoritagain

Una vez finalizadas las obras de reforma del parque de Txoritagain el espacio está abierto al público. Todavía queda por pintar el murete, pero los niños y las niñas ya tienen la posibilidad de jugar en un espacio renovado, moderno y agradable.

Se han instalado unos nuevos y modernos juegos de madera, propicios para que las niñas y los niños socialicen y potencien sus habilidades. Por otro lado, se ha eliminado la valla de cierre existente, así como la mayor parte de los muretes de hormigón creando un espacio abierto que conecta con el barrio.

Es una de las mejoras propuestas por la ciudadanía en los procesos participativos de años anteriores.



## Gaztelekuko argiak LED sistemara aldatu dira

Gaztelekuko argi guztiak LED sistemara aldatu ditu Udalak eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetuz eta kontsumoa murriztuz.

Urnietako Udalak iraunkortasunaren alde aurtun garatuko dituen ekintza desberdinen artean sartzen da hau ere. Bide berdina jarraituko da Udaleko beste zenbait eraikinetan. Halaber, ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune jarriko dira, Udaltzaingoaren ibilgailu bat berrituko da ibilgailu hibrido bat gehituz eta energia-komunitateak sortzeko aukera landuko da.

## Las luces del Gazteleku se han cambiado al sistema LED

El Ayuntamiento ha cambiado todas las luces del Gazteleku al sistema LED mejorando la eficiencia energética del edificio y reduciendo el consumo.

Esta actuación forma parte de las diferentes acciones que el Ayuntamiento de Urnieta desarrollará este año a favor de la sostenibilidad. Se seguirá el mismo camino en otros edificios municipales. También se habilitarán dos puntos de recarga de vehículos eléctricos, se renovará un vehículo de la Policía Municipal añadiendo un vehículo híbrido y se trabajará la posibilidad de crear comunidades energéticas.



## Ergoien industrialdean asfaltatze lanak gauzatu dira

Ergoien industrialdean asfaltatze lanak burutu dira eremu horretako errepidearen egoera hobetzeko.

Esku hartzeak poligonoaren sarreran eta barnealdeko hainbat gunetan garatu dira.

## Trabajos de asfaltado en el polígono Ergoien

Se han realizado trabajos de asfaltado en la zona industrial de Ergoien para mejorar el estado de la carretera de ese ámbito.

Las intervenciones se han desarrollado en la entrada del polígono y en varias zonas del interior.

# Ermotegin eraikiko diren babes ofizialeko 25 etxebizitza tasatuetan izena emateko epea otsailaren 14ean amaituko da

Britac Proyectos S.L. sustatzailea 130 etxebizitza eraikitzen ari da Ermotegiko eremuan. Horietatik 25 babes ofizialekoak izango dira eta beste 25 berriz, tasatuak. Eremuaren garapenak aurrera jarraitzen du, eta urtarrilaren 17an Etxebidaren webgunean argitaratu zen etxebizitza tasatuetan izena emateko epea.

Etxebizitza horietakoren bat erosi nahi eta esleipen-prozesuan parte hartzeko interesa duten herritarrek otsailaren 14ra arteko epea dute Etxebidari idatzi baten bidez jakinarazteko.

## Ezinbestekoa da Etxebideko erregistroan alta emanda egotea

Horretarako, ezinbestekoa izango da Etxebideko erregistroan alta emanda egotea Donostialdea-Bidasoa Behera Eremu Funtzionalean erosketako etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa eskabi-



deak aurkezteko epearen hasieran (urtarrilaren 17an).

## Zerrendaren argitalpena

Ondoren, otsailaren 21ean, Etxebidaren webgunean eta Eusko Jaurlaritzaren taula elektronikoa argitaratuko dira sustatzaileak notario aurrean egingo duen zozketan parte hartuko duten pertsonen zerrenda eta parte hartuko ez dutenen zerrenda,

arrazoia adierazita. Halaber, zerrenden aurka erreklamazioak aurkezteko epe bat adieraziko da.

## Tipologiak

25 etxebizitza tasatu horien barruan tipologia desberdinak egongo dira, 1, 2 eta 3 logelako etxeekin. Era berean, etxebizitza egokitu bat egongo da. Prezioei dagokienez, 174.708,37€ eta 274.992,13€ artekoak izango dira.

## Informazio guztia Etxebiden

Interesdunek Etxebidaren webgunean kontsulta dezakete informazio guztia. Baita eraikuntza enpresari deituta ere.

## Babes ofizialeko 25 etxebizitza

Bestalde, hasieran aipatu moduan, babes ofizialeko beste 25 etxebizitza eraikiko dira eremu berdinean. Promozio hori ateratzen denean, Udalak informazio zehatza emango die urnietarrei.

# El plazo de inscripción para las 25 viviendas tasadas de protección oficial que se construirán en Ermotegi finaliza el 14 de febrero

La promotora Britac Proyectos S.L. está construyendo 130 viviendas en el área de Ermotegi, de las cuales 25 serán VPO y otras 25 en régimen de vivienda tasada. El desarrollo sigue adelante y el día 17 de enero se publicó en la página web de Etxebide el plazo de inscripción para las viviendas de protección en régimen de viviendas tasadas.

Las personas que estén interesadas en comprar alguna de estas viviendas y deseen participar en el proceso de adjudicación tienen de plazo hasta el 14 de febrero para notificarlo a Etxebide mediante la presentación de un escrito.

## Imprescindible estar dado de alta en el registro de Etxebide

Para ello, será imprescindible estar dado de alta en el registro de Etxebide a fecha de co-

mienzo del plazo de presentación de solicitudes (17 de enero) como demandantes de vivienda protegida en compra en el Área Funcional de Donostialdea-Bajo Bidasoa.

## Publicación del listado

Después, el 21 de febrero se publicará en la página web de Etxebide y en el tablón electrónico del Gobierno Vasco el listado de las personas que participarán en el sorteo que realizará el promotor ante notario, y la relación de personas que no participarán, con indicación del motivo. Asimismo, se indicará un plazo para presentar posibles reclamaciones a las listas.

## Tipologías

Dentro de esas 25 viviendas tasadas habrá diferentes tipologías con casas de 1, 2 y 3

dormitorios. Asimismo, habrá una vivienda adaptada. En cuanto a los precios, oscilarán entre los 174.708,37€ y los 274.992,13€.

## Toda la información en Etxebide

Las personas interesadas pueden consultar toda la información en la página web de Etxebide o llamando a la constructora.

## 25 viviendas de VPO

Por otro lado, tal y como se ha indicado al inicio, también se construirán otras 25 viviendas de VPO en ese mismo ámbito que se ofertarán próximamente. Cuando dicha promoción esté disponible el Ayuntamiento dará información detallada a la ciudadanía urnietarra.



## Beterri-Buruntzako Mankomunitatea eratu da

Urte askotako lanaren ondoren, Urnieta, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo Udalek Beterri-Buruntza Mankomunitatea eratu zuten urtarrilaren 18an Hernaniko Udaletxean egindako bilkuran.

Beterri-Buruntzako Mankomunitatearen helburu nagusia eskualdeko garapen ekonomiko eta soziala izango da, giza garapen iraunkorra eta herritarren ongizatea hobetzea erraztuko duten jarduerak sustatuz. Zehazki, besteak beste, enpleguari, ekintzailtzari, ingurumenari edo turismoari buruzko proiektuak sustatu eta diseinatzeaz arduratuko da, sozialki arduratsua den jarduera ekonomikoa bultzatuz eta herritarrei parte hartzeko aukera eskainiz.

Ordezkariek zin egin edo hitza eman ondoren, Beterri-Buruntzako Mankomunitatea eta Batzar Nagusia eratzeko adierazpena egin zen, eta, ondoren, Mari Jose Izagirre hautatu zen Beterri-Buruntzako Mankomunitateko lehendakari. Lehendakariorde kargua Nuria Fernández-ik egokituko zitzaion, eta bilkura berean eratu zen Gobernu Batzordea, osatzen duten kide guztiak izendatuta. Jorge Segurado Urnieta alkatea izango da Udalen ordezkarria.

Mari Jose Izagirre Andoaingo Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria zinegotzia da, eta, besteak beste, agintziaren batzorde sustatzaileko lehendakaria izan da orain arte. Bestalde, Fernández

Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia Saileko zinegotzi arduraduna da.

Lehendakari izendatu berritan, Izagirrek eskerrak eta zorionak eman zizkien udal ordezkariei, "eskualde mailako azken urteetako lehenetsunezko erronka behar bezala gauzatzeagatik" eta emaitza "lankidetzaren eta ahalegin kolektibo handiaren bidetik" eman delako. Izagirrek gaineratu zuen agenzia operatiboa behar dela "dauden erronka sozioekonomikoei aurre egiteko, esate baterako, eskualdearen suspertzea Covid osteko aroan".

Horrela, Beterri-Buruntza eskualdeko kohezionatua lortzeko egitura sendotzen da, eta helburu partekatutako lortzeko baliabide egokiak eskaintzeko aukera indartzen da.

## Se ha constituido la Mancomunidad de Beterri-Buruntza

Como resultado de años de trabajo, los Ayuntamientos de Urnieta, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria y Usurbil constituyeron la Mancomunidad de Beterri-Buruntza en una sesión celebrada el 18 de enero en el Ayuntamiento de Hernani.

El objetivo principal de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza será el desarrollo económico y social de la comarca a través de la promoción de actividades que faciliten el desarrollo humano sostenible y la mejora del bienestar de la ciudadanía. En concreto, se encargará de promover y diseñar proyectos sobre empleo, emprendizaje, medio ambiente o turismo, entre otros, impulsando una actividad económica socialmente responsable y ofreciendo a la ciudadanía la posibilidad de participar.

Tras el acto de juramento o promesa de las y los representantes, realizaron la declaración de Constitución de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza y de la Asamblea General, y, posteriormente, se procedió a la elección de Mari Jose Izagirre como presidenta de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza. El cargo de vicepresidenta recaerá en Nuria Fernández. En la misma sesión se constituyó la Comisión de Gobierno, con la consiguiente designación de las y los diferentes miembros que la constituyen. El alcalde de Urnieta Jorge Segurado será el representante del Ayuntamiento.

Mari Jose Izagirre es concejala de Promoción económica, Empleo y Juventud del Ayuntamiento de Andoain, y entre otras tareas ha ejercido hasta ahora como presidenta de la comisión promotora de la

agencia. Por su parte, Fernández es concejala responsable del Área de Socioeconomía del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Tras haber sido nombrada como presidenta, Izagirre agradeció y felicitó a todas las personas representantes municipales por "completar satisfactoriamente, de forma compartida, el reto comarcal más prioritario de los últimos años que ha sido fruto del intenso esfuerzo colectivo". Izagirre añadió que "necesitamos tener la agencia operativa para afrontar los retos socioeconómicos existentes, entre ellas la reactivación comarcal en la era post-Covid".

Así, se consolida la estructura para lograr una comarca más cohesionada y también se refuerza la disponibilidad de ofrecer recursos adecuados para la consecución de objetivos compartidos.



## XXVIII Antia literatur lehiaketa

Urnietako Udaleko euskara sailak On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren edizio berri bat antolatatu du. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea eta martxoaren 18 izango da horretarako azken eguna.

### Bi kategoria desberdin egongo dira aurten

#### Haurren kategoria:

12 urtetik beherakoak, herritarrak edo herriko ikastetxe bateko ikasleak. Lanen luzera 2-4 orrikoa izango da.

#### Sariak

**1.Saria:** Tablet bat

**2.Saria:** Ebook bat

**3.Saria:** Ebook bat

#### Gazteen kategoria:

12-16 urte bitartekoak, herritarrak edo herriko ikastetxe bateko ikasleak. Lanen luzera 3-8 orrikoa izango da.

#### Sariak

**1. Saria:** 500 euro

**2. Saria:** 300 euro

**3. Saria:** 150 euro

### Oinarriak

- Kategoria guztietan ipuinak euskaraz idatziak izan beharko dira, originalak, beste lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak eta argitara eman gabeak.
- Ipuinen gaia librea izango da
- Lehiakide bakoitzak gehienez lan bat aurkez dezake.
- Ipuinek izenburu bana izan beharko dute, eta goiburua erabili ahal izango da.
- Lanak mekanografiatuak aurkeztu behar dira, DIN A-4 neurriko orrietan, alde batetik bakarrik idatzita eta lerro artean tarte bikoitza utziz. Hiru kopia aurkeztuko dira, egilearen arrastorik gabe eta gutunazal itxi batean sartuta.
- Lanen aurkezpenari dagokionez, eskutan jasoko dira edota, bestela, posta arruntez igorriko dira ondoko helbide honetara: Lekaio kultur etxea, San Juan plaza z/g 20130 Urnieta (Gipuzkoa).

## XXVIII certamen literario Antia

El departamento de euskera del Ayuntamiento de Urnieta ha organizado una nueva edición del concurso literario On Manuel Antonio Antia. Ya está abierto el plazo para presentar los trabajos, el cual finalizará el 18 de marzo.

### Habrará dos categorías este año

**Categoría infantil:** menores de 12 años, con empadronamiento en Urnieta o alumnos o alumnas de un colegio de Urnieta. Los trabajos deberán de tener una extensión de entre 2 y 4 páginas.

#### Premios:

**1.** Una tablet

**2.** Un ebook

**3.** Un ebook

**Categoría juvenil:** jóvenes de entre 12 y 16 años, con empadronamiento en Urnieta o alumnos o alumnas de un centro escolar de Urnieta. Los trabajos deberán de tener una extensión de entre 3 y 8 páginas.

#### Premios:

**1.** 500 euros

**2.** 300 euros

**3.** 150 euros

#### Bases

- En todas las categorías los relatos deberán estar escritos en euskera, originales, y no habrán sido premiados ni publicados en ningún otro concurso.
- El tema será libre
- Los relatos deben tener un título, y se podrá utilizar un alias.
- Cada concursante puede presentar como máximo un trabajo.
- Los trabajos se presentarán mecanografiados, en hojas de tamaño DIN A-4, escritos en una sola cara y con doble espaciado de línea. Se presentarán tres copias, sin indicio del autor o de la autora, y dentro de un sobre cerrado.
- Por lo que respecta a la entrega, los relatos se recibirán en mano o se enviarán por correo ordinario a la siguiente dirección: casa de cultura Lekaio, plaza San Juan s/n, 20130 Urnieta (Gipuzkoa).

VANESSA BARRIUSO

## “Gure nahia da zaldiekiko afizioa handitzen joatea eta Gipuzkoa mailan tokitxo bat egitea”



har dira horrek duen kostuarekin. Ilusio handiarekin eman genuen pausoa baina jarraitkortasun ezaren ondorioz gorabehera asko izan ditugu. Ea orain martxa hartzen dugun.

### Zenbat zaldi dituzue?

Orain zaldi eta ponien artean 24 inguru egongo dira. Pare bat bezeroenak dira, beste bi nire semearenak eta gainerakoak etortzen diren pertsonenak montatzeko dira.

### Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Banakako eta taldeko ekitazio eskolak eskaintzen ditugu maila guztietarako. Hasieran zaldian ibiltzen erakusten dugu, eta, ondoren, maila pixka bat hartzen dutenean saltoan erakusten dugu, batez ere horretara bideratuta gaudelako. Txapelketetan ere modalitate horretan aritzen gara.

### Edonor etor daiteke? Baita inoiz zaldian ibili ez den pertsona bat ere?

Ez da beharrezkoa zaldiketaz ezer jakitea hona etortzeko, zaldian ibili ez diren pertsonak etor daitezke. Kasu horietan zertik hasten gara oinarriko gauzak erakutsiz, eta beldurra izanez gero sokarekin eramaten ditugu hasieran. Gu hipika txiki bat gara eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu multzo txikiko klaseekin. 5 pertsona inguru egon ohi dira klaseetan, ez gehiago, eta mailen arabera antolatzen ditugu. Beste leku batzuetan 10-15 pertsona egon daitezke klase bakoitzean.

### Paseoak emateko aukera badago?

Badaude beste zalditoki batzuk zaldiak paseoak emateko ohituta dituztenak, baina gureak ez, gureak saltoan aritzeko daude entrenatuta. Dena den, baditugu hastapenerako lasaiagoak diren batzuk ere.

Hori bai, 3, 4 edo 5 urteko ume txikientzat poniekin paseoak emateko aukera eskaintzen dugu gurasoen laguntzarekin. Horrek lehen kontaktua egiteko balio du.

### Zaldiak uzteko aukera badago?

Bai. Zaldia duten pertsonenak hona ekar dezakete, domatzeko edo zaintzeko, baita klaseetan parte hartzeko ere. Bere zaldia dutenentzat prezioak baxuagoak dira. Gu txi gara hemen eta bezeroak etxeokak baira bezala tratatzen ditugu.

Familiako zaletasunari bide emateko helburuz sortu zuten Basitegi hipika kluba 2020an eta une zailak igaro dituzten arren, pixkanaka garatzen joatea, bidea egiten jarraitzea eta Gipuzkoa mailan leku bat egitea dute helburu Vanessa Barriuso arduradunaren hitzetan.

### Nola sartu zineten abentura honetan?

Ni Donostiarra naiz, Gros auzokoa. Bere garaian psikologiako ikasketak egin nituen eta praktikak gauzatu nituen enpresa arloan, baina ez zitzaidan gehiegi gustatu. Ondoren, beste lan batzuetan jardun nuen, eta, azkenean, 2008an Basitegi baserria erosi genuen zahar-zaharra eta terreno guztiak garbitzeko zeudela. Lehen proiektua oilategiarena izan zen, 2013an jarri genuen martxan.

### Orain ordea, landetxea eta hipika ere badituzue.

Orain zaldiak dauden lekuan Basetxerriko txerri kanperoak jarri genituen oilategiaren ostean. Esperientzia polita izanagatik gogorra izan zen, lan asko eskatzen zuena eta errentabilitate gutxi ematen zuena. Garai hartan beste hipika batera joaten ginen

erabiltzaile moduan nire bi semeekin, baina hango egoera txarra zen. Gipuzkoan badaude beste hipika batzuk, baina guretzat urruti zeuden eta zaldiak zaintzera egunero joan behar da. Etxean poni eta potro batzuk bagenituenez eta lurra ere eskura genituenez guretzako pista bat egitea pentsatu genuen. Asmoa semeek entrenatzeko leku bat izatea zen, gure zaletasunari bide emateko, izan ere, Espainia mailan irriten gara txapelketetan parte hartzera.

### Abiapuntua hori izanda, noiz eman zenuen jauzia?

Pista eta zaldi-ukuilua egindakoan jendeak galdetzen zigun montatzera joateko aukera zegoen. Horretaz gain, aurreko hipikan egindako lagunak probatzera etortzen hasi ziren. Beste pauso bat ematea erabaki genuen eta 2020an Udalekuak antolatuta genituen lehen aldiz.

### Nola joan dira lehen hilabeteak?

Hipika bezala landetxea ere 2020an ireki genuen pandemiaren erdian eta oso momentu zailan. Une gogorak pasa genituen, izan ere, bolaba batean hipikara etortzea ez zegoen baimendua, eta bezeroak etorri ez arren, zaldiak mantendu eta zaindu egin be-





### Zein perfiletako jendea etorri ohi da?

Ia denak umeak dira eta gehienak neskak izaten dira. Ez dakit zein den arrazoa baina hipikan 10etik 8 neskak izaten dira txikitan. Gero egia da 16-17 urterekin neska gehienek utzi egiten dutela. Mutiletan berriz, jarraipena handiagoa da, pena bat da.

### Nondik etortzen da jendea?

Donostiatik batzuk eta Hernanitik ere dezentente. Urnietatik berriz, oso gutxi, 1 edo 2 soilik gerturatu dira probatzera.

### Prezioei dagokienean zein tarifa dituzue?

Klase batean ordu solte batean montatze-  
ra etortzea 25 euro dira. Gero jarraipena izan nahi duten pertsonentzako 6 hilabeteetan gasta daitezkeen bonoak ditugu, 6koak (120 euro) eta 10ekoak (180 euro). Horretaz gain, astean 3-4 egunetan etortzen diren umeei klaseak 14 eurotan irriten zaizkie. Beraz, zenbat eta gehiago etorri orduan eta merkeago.

### Ordutegi aldetik zein aukera eskaintzen dituzue?

Asteartetik ostiralera arratsaldeetan egoten gara eta asteburuetan berriz, goizez 10:00-14:00 bitartean.

### Zein dira zuen instalazioen ezaugarriak?

50 x 30 metroko hareazko pista txukun bat dugu aire librean. Baita zaldientzako ukui-lua ere.

### Nortzuk osatzen duzue taldea?

Albaitaria eta erratzailea kontratatu egiten ditugu gure beharren arabera. Bertako langileei dagokienean zalditegiak eta garbitasuna egiteko pertsona bat dugu. Bestalde, irakasle bat dugu klaseak emateko eta gero nik dena koordinatzen eta gainbegiratzen dut.

### Zein da zuen egunerokoa?

Goizeko 8:00etan gosaria ematen diegu zaldiei, belarra eta pentsua. Gero oheak egiten ditugu, beraien lekua garbitu eta atera egin behar dira mugitzeko eta ahalik eta hobekien mantentzeko. Ahal dugunean egunean bi aldiz ateratzen ditugu. Oso pendiente egoten gara zaldiak ondo egon daitezzen. Oso inportantea da zainketa egokia egitea. Animalia indartsuak diruditen arren, delikatuak dira. Edozein momentutan koliko bat izan dezakete eta... Gu oso gaiean egoten gara. Eguraldi onarekin larrera ere ateratzen ditugu. Bestalde, klaseak antolatzen ditugu horretarako zaldiak prestatuz.

### Animaliekin harreman berezia sortuko da ezta?

Umeak ordu erdi lehenago etor daitezzen saiatzen gara zaldia prestatzen ikas dezaten. Beste batzuk denbora dutenean egun osorako ere etortzen dira mundu honetan barneratzen joateko, eta zaldiak ateratzen eta sartzen laguntzen digute. Horrekin guztiarekin beste hainbat balore ere ikasten dira, arduratsua izatea adibidez.

### Zaldi bakoitza desberdina izango da ezta?

Normalean zaldi batekin ibiltzen dira beti umeak, baina noizean behin zaldia aldatzen diegu ikus dezaten zaldi bakoitzarekin desberdin jokatu behar dela eta egokitu egin behar dutela. Izan ere, zaldi batzuek odol beroa dute eta beste batzuk berriz, hotzak dira. Beraz, izaeraren arabera egokitzen jakin behar da.

### Kirol arriskutsua da?

Berez ez, baina istripuak izaten dira kirol guztietan bezala. Erroketak egon daitez-

ke, baina gu saiatzen gara horiek saihesteko lanketa pertsonalizatua egiten eta entrenamenduak egokitzen.

### Lehiaketak edo bestelako ekitaldiak antolatzen dituzue?

Oraingoz ez, klaseetara eta udalekuetara bideratuta gaude. Dena den, hona etortzen diren eta maila polit bat lortzen duten umeei txapelketetan parte hartzeko aukera eskaintzen diegu. Horretarako astean 3-4 aldiz etorri behar izaten da, bestela oso zaila da. "Liga Nortena" parte hartzen dugu, normalean hilabetero izaten dira probak.

### Emaitza onak lortzen dituzue?

Gurekin dabilen Hernaniko neska bat esaterako, apirilean hasi zen eta abenduan Gipuzkoako txapelkun izan zen bere altueran. Guretzako harrotasun eta poztasun handia da hona etortzen diren ikasleak gozatzen eta garatzen ari direla ikustea. Horretaz gain, saiatzen gara erakusten garai-penak denonak direla. Nahiz eta banakako kirola izan atzetik taldeko lana eta elkarlaguntza handia dago. Umeen arten laguntasun berezi bat sortzen da. Txapelketak gustatzen zaizkigu eta baita lehiatzea ere, baina beti esaten diegu umei kiroltasuna eta errespetua direla gauzarik garrantzitsuenak.

### Zein erronka dituzue etorkizunari begira?

Gure nahia da zaldiekiko afizioa handitzen joatea, etorkizunean handitzen joatea eta Gipuzkoa mailan tokitxo bat egitea. Ea gero eta ume gehiago etortzea lortzen dugun. Horretako pista estali bat egitea garrantzitsua litzateke, beste pauso bat ematen lagunduko liguke. Ea posible den.

## Egape Ikastola



## Egape ikastola etengabeko prestakuntzaren alde

Etengabeko prestakuntza helburuetako bat du Egape Ikastolak. Hori dela eta, urteak dira, Egape Ikastolak unean uneko berrikuntzen inguruan formazio saioak antolatzen dituela. Formazio saioak Egapeko komunitate osoarentzat bideratuak dira, bai irakasle, bai familia eta baita ikasleentzat ere. Formazio saioak ikasturtean zehar antolatzen ditugu eta ikasturtean zehar aztertutako beharrei eta eskaerei erantzun asmoz, eredu ezberdinetako formazioak eta hizlari profesionalak izaten ditugu gurekin.

Egapeko profesionalak barne formazioak izan dituzte aurtengo ikasturtean, baina baita kanpoko profesionalena ere,

hala nola, Alvaro Beñaran Psikomotrizista eta Pedagogoaren formazio saioa Haur Hezkuntzako irakasleentzat eta GEUZeko Sara Gonzalez Murorena Bigarren Hezkuntzako irakasleriarentzat.

Familiei zuzendutako hitzaldiak ere antolatu ditugu aurtengo ikasturtean, gai eta arlo desberdinen inguruan, besteak beste, teknologia eta sare sozialen ingurukoa eta harreman eredu onak eraiki asmoz prestatutako hitzaldiak.

Ikasleek ere euren formazio saioak izaten dituzte, Ikastolako proiektu desberdinen inguruan egindakoak, beti ere, gure ikasle diren hauen garapen integrala lortu asmoz.

## Egape ikastola apuesta por la formación continua

Egape Ikastola tiene entre sus objetivos la formación continua. Por ello, desde hace años, organiza sesiones formativas en torno a las novedades del momento. Las sesiones formativas están dirigidas a toda la comunidad de Egape, tanto profesorado, familia como alumnado. Organizamos sesiones formativas a lo largo del curso y con el fin de dar respuesta a las necesidades y demandas estudiadas a lo largo del curso, contamos con formaciones de diferentes modelos y ponentes profesionales.

Los profesionales de Egape han tenido este curso formaciones internas, pero también de profesionales externos, como la sesión formativa del Psicomotricista y Pedagogo Álvaro Beñaran para el profesorado de Infantil y Sara González Murorena para el profesorado de Secundaria de GEUZ.

Este curso también hemos organizado charlas dirigidas a las familias sobre temas y ámbitos como la tecnología y las redes sociales y charlas preparadas para construir buenos modelos de relación.

Los alumnos y alumnas también tienen sus propias sesiones de formación, realizadas en torno a los diferentes proyectos de la Ikastola, siempre con el objetivo de conseguir un desarrollo integral de los que son nuestros alumnos.

## Imagale Ikastetxea

## IKASGELATIK ERREALITATERA: irudi korporatiboa egitetik 'Ekinbide' elkarteko kide izatera

'Ekinbide Donostiako Suhiltzaileak' gobernuz kanpoko erakundeari irudi korporatiboa eta webgunea egin dizkio Francisco Ruiz Salestarretako Inprimaketa Grafikoko ikasleak.

Klaseko lan-erronka bezala ekin zion, baina laster bilakatu zen bere bizitzaren parte. Francisco Ruiz Salestarretako Inprimaketa Grafikoko ikaslea dugu. Bertan proiektuetan oinarritutako lanak egiten dituzte, eta Ruizi honako gonbita luzatu zioten: 'Ekinbide Donostiako Suhiltzaileak' gobernuz kanpoko erakundearen irudi korporatiboa sortzea. Hala hasi zen eurak laguntzen; gaur arte.

Izan ere, elkartearen irudi korporatiboa egin ondoren, webgunea ere egin zien. "Garrantzitsuena hasieratik elkar ezagu-

etzea izaten da, konfiantza sor dadin. Berriek beren ideiak zituzten eta nik nireak; hala, pixkana elkarlanean sortzen joan ginen, beti ere Ekinbideren baloreak kontuan harturik", dio Ruizek.

Hori zela kausa, lehenik identitate korporatiboan liburuxka eratu zuen. "Logotipoa eraiki behar duzu, zer kolore eta forma erabil daitezkeen eta zeintzuk ez, nola jarri behar den gutunetan, txarteletan... Dena". Pixkana-pixkana gero eta gehiago parte hartzen hasi zen ikaslea, hari eta hurrengo pausua eman zuen arte: "Ez zen erronkaren parte, baina webgunea ere behar zuten eta animatu nintzen: [www.ekinbideong.org](http://www.ekinbideong.org)", azaldu digu pozik.

Hala, emaitzarekin "oso gustura" dela dio: "Nire harri koxkorra ekarri dudalako, besteak beste, zenbait ekimenen artean, suhiltzaile-



kamioia eraman nahi dutelako Guinea Bissauko Bafatá hirira. Zoragarria da. Honez gain, nire kurrikulumerako ere ederra da, enpresa batengana joaterakoan egindakoa modu errealean erakutsi dezakezulako". Hori gutxi balitz, erakundeko bazkide dugu orain Ruiz eta gaur egun beste hainbat alorretan ere laguntzen ari da. "Jarrantuko dut, nire bizitzaren parte da-eta".



# Etxean, etxekoa!

## ¡Producto local!



### URNIETAKO KZ-GUNEA

943 023 682 · www.kzgunea.eus

#### OTSAILEKO ORDUTEGIA HORARIO DE FEBRERO 16:00-20:00

ASTELEHENETIK OSTIRALERA HILABETEKO LEHEN HAMABOSTALDIAN  
DE LUNES A VIERNES LA PRIMERA QUINCENA DEL MES

##### Komunitate birtualak:

Zure elkartearen doako webgunea sortzeko aukera eskaintzen dizugu.

##### IT Txartela:

Teknologia berrien gaineko ezagupideen egiaztapena.

##### IKASTAROAK (ASTELEHENETIK OSTIRALERA):

**Oinarrizko Internet:** Internet mundua, PC bat ezagutu, nabigazioa, posta elektronikoa... eta gehiago.

**Software libre:** ofimatika mundua, software librearen baldintzak, baimenak eta abar.

**Sare Sozialak 2.0:** sare ezberdinak erabiliz, komunikatu eta zure dokumentuak konpartitu.

**Irudia:** imaginazioa esna ezazu grafiko aplikazioak erabiliz.

**Google Apps:** zure eta zure enpresaren antolakuntza errazteko tresnak.

**Smartphoneak eta tabletak:** zure gailuak eta aplikazio ospetsuenak erabiltzen ikasi.

**Programazioa eta garapena:** programazio tresnak erabiltzen ikasi.

##### Comunidades virtuales:

Te ayudamos a crear una página web gratuita para tu asociación.

##### IT Txartela:

Certificación de conocimientos en nuevas tecnologías.

##### CURSOS (DE LUNES A VIERNES):

**Internet básico:** entra en el mundo de Internet; qué es un PC, correo electrónico... y mucho más.

**Software libre:** ofimática, características del software libre, tipos de licencias, etc.

**Redes Sociales 2.0:** comunícate y comparte tus documentos a través de las diferentes redes sociales.

**Imagen:** da rienda suelta a tu creatividad con las aplicaciones gráficas de código abierto.

**Google Apps:** herramientas que facilitarán tu organización personal y la de tu empresa.

**Smartphones y tablets:** aprende a utilizar tus dispositivos y las aplicaciones más populares.

**Programación y desarrollo:** aprende a utilizar herramientas de programación.

#### IKASTAROAK / CURSOS

**BakQ ziurtagiria.** Certificado BaQ  
14 18:00-20:00 Castellano

##### BIDEOKONFERENTZIA VIDEOCONFERENCIA

**Mekanografia. Ikasi hutsetik.**  
Mecanografía. aprende desde cero  
25-28 11:00-13:00 Castellano

**Editatu bideoak zure Smartphonearekin.**  
Edita videos con tu Smartphone  
15-16 16:00-18:00 Euskara

**Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu.** Google Maps.  
Visualiza y planifica tu mejor ruta  
16-17 18:00-20:00 Castellano

**LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu.** LibreOffice Writer Crea tus documentos de texto  
24-25 11:00-13:00 Castellano

**Gmail. Posta elektronikoa baino gehiago - Gmail.** Mucho más que un correo electrónico  
16-17 18:00-20:00 Castellano

**Online izapideak Osakidetzarekin.**  
Trámites online con Osakidetza.  
15-16 18:00-20:00 Castellano

##### URRUNEKO HEZKUNTZA FORMACIÓN A DISTANCIA

**Ikasi HTML programatzen.** Aprende a programar en HTML  
14-02/02-03-2022 20 ordu Euskara

**Pinterest. Zure inspirazio-iturria.** Pinterest.  
Tu fuente de inspiración  
14-02/23-03-2022 4 horas Castellano

## AGENDA

## OTSAILA / FEBRERO

### DANTZA IKUSKIZUNA: "UR BIZITAN"

- **Eguna:** otsailak 13
- **Ordua:** 19:00
- **Lekua:** Sarobe
- **Hizkuntza:** euskara
- **Sarrera:** 5 euro (Sarobe eta bibe.me)

#### Sinopsia:


Zer da garapena?

Behartu ahal dezake ekonomiaren aitzakiak inor bere bizimodua aldatzera? Bere etxetik alde egitera? Bere bigarren gorputza den etxea desjabetzera?

Ekonomia jasangarriaren aldeko alegoria bat.

Edo agian modu jasangarri batean bizitzeko aukerarik dugun hausnartzeko balio duen lan bat.

Ez ekintza huts eta anekdotikoetan geratuz. Ez soilik jaki, jantzi edo kontsumo beharren asetzeko produktuetan



erreparatuz. Bizitza beraren oinarri eta garapenean gizaki eta natur baliabideen arteko elkar ulertze zintzo baten beharrea baizik.

Eta zoritxarrez horren ohituak gauden arren, natura gizakiaren beharretara moldatzeko joeraren ondorioak agertuz.

### ANTZERKIA: "ALTSASU"

- **Eguna:** otsailak 20
- **Ordua:** 19:00
- **Lekua:** Sarobe
- **Hizkuntza:** euskara
- **Sarrera:** 5 euro (Sarobe eta bibe.me)

#### Sinopsia:

2016ko urriaren 15eko goizaldean, Altsasun (Nafarroan), Koxka tabernaren atarian, liskar bat izan zen herriko zenbait bizilagunen, Guardia Zibileko bi agenteren eta horien bikotekideen artean. Horren ondorioz, bi pertsona atxilotu zituzten, eta guardia zibiletako bat, tenientea, orkatila bat hautsita amaitu zen. 24 orduan baino gutxiagoan, telebista-plato bihurtu zen Altsasu herria,

eta, egun eta erdian baino gutxiagoan, Estatu mailako kontua izan zen gertatutakoa. Salatzaileek uko egin zioten Foruzaingoaren aurrean deklaratzeari; aitzitik, Guardia Zibileko beren kideen aurrean deklaratu zuten.

COVITEK, Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak, Auzitegi Nazionallean salatu zuen gertatutakoa, eta horrek egoera irauli zuen. Elkarre horrek terrorismoaren akusazioa sartu zuen bere sala-



ketan, eta bederatzi gazteren aurkako polizia-operazioa jarri zen martxan. Horieta-ko zazpi berehala espetxeratu zituzten. 2018ko apirilaren 16an ahozko bista hasi zen; fiskaltzak 12 eta 62 urte bitarteko kartzela-zigorra eskatu zuen zortzi gazterentzat. Epaiketak ikusmin handia piztu zuen Espainiako estatuan, alde batetik askatasunen murrizketa ekar zezakeelako, eta beste batetik, fiskaltzak «terrorista» hitzaren gehiegizko erabileragatik.